Aiako Udala
Gozategi 1, 20809 AIA
Telf. 943-131144
aia@aia.eus

ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ARRAZUBI-BERRI EREMUAN BABESTUTAKO BOST ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATATZEKO.	PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS DE CONSTRUCCIÓN DE UN EDIFICIO DE CINCO VIVIENDAS PROTEGIDAS EN ARRAZUBI-BERRI POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO.
I. KONTRATUAREN EDUKIA **1. KONTRATUAREN XEDEA** Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hau da: Aiako Santio Erreka auzoko Arrazubi-Berri eremuan bost etxebizitza babestu eraikitzea eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.	**I. CONTENIDO DEL CONTRATO** **1. OBJETO DEL CONTRATO** El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la construcción de un edificio de cinco viviendas protegidas en la zona Arrazubi Berri del Barrio Santio Erreka de Aia de conformidad con la documentación técnica que figura en el expediente que tendrá carácter contractual.
2. OBRAK BURUTZEKO EPEA Kontratu honen xede diren obrak burutzeko epea 18 HILABETEKOA izango da, Zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epe hori. Epe hori lanak amaitu gabe igarotzen bada, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta kontratatzaileak aurretik ez ohartarazi.	**2. PLAZO DE EJECUCION** El plazo total de ejecución de las obras objeto de la presente contratación será de 18 MESES, contado a partir del día siguiente al de la firma del acta de comprobación del replanteo. El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte del órgano de contratación.
3. KONTRATUAREN AURREKONTUA Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: 805.531,23 €, 169.161,56 BEZ-ari dagozkionak. Lizitatzaileek aurrekontua hobetu dezakete. Guztira: 974.692,79 €. Esleipen honetako oinarrizko aurrekontuan, exekuzio materiala, onura industriala, gastu orokorrak, segurtasun eta osasuneko gastuak, kalitate kontrola, hondakinen kudeaketa eta BEZ-a aurreikusten dira. Aldi berean, kalitate kontroleko eta hondakinen kudeaketako azterketak eta planak esleipendunak burutu beharko ditu.	**3. PRESUPUESTO DEL CONTRATO** El presupuesto base de licitación será de 805.531,23 €, más 169.161,56 correspondientes al IVA, presupuesto que podrá ser mejorado por los licitadores. Total presupuesto: 974.692,79 € En este presupuesto base de licitación está incluida la ejecución material, el beneficio industrial y los gastos generales, los gastos de seguridad y salud, el control de calidad, la gestión de residuos y el IVA. Del mismo modo, los estudios y planes de Control de Calidad y Gestión de Residuos serán redactados por el adjudicatario.

Aiako Udala
Gozategi 1, 20809 AIA
Telf. 943-131144
aia@aia.eus

Dokumentazioan, unitateko prezioak aurkeztu beharko dira, behar bezala zehaztuak, aurkeztutako proposamen ekonomikoaren egokitasuna egiaztatu ahal izateko. Proiektuan aurreikusi gabe dauden lan-partidak sortuz gero, lizitatzaileak oinarritzat Eusko Jaurlaritzak argitaratutako azken prezio basea hartuko du, prezio berriei, proposamen ekonomikoan egindako beherapenaren ehunekoa berdina egingo dielarik.	La documentación a aportar incluirá una relación de precios unitarios, debidamente desglosados, a fin de comprobar la adecuación de la oferta económica presentada. En las unidades de obra no previstas en proyecto (imprevistos) se entenderá que el licitador oferta los que aparecen en la última base de precios publicada por el Gobierno Vasco, afectados en igual porcentaje de baja que el contenido en su proposición económica.
4. FINANTZABIDEAK Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.	**4. FINANCIACION** Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año en curso.
5. NOLA ORDAINDU Obra burutuak aldizka ordainduko dira, egiaztagiriak egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek. Ordainketak, Legeak ezarritako epean burutuko dira, fakturak, egiaztagiri bakoitza Aia Lantzen S.A.-ko esku duen organoak onartu ostean igorriko direlarik.	**5. FORMA DE PAGO** El pago de las obras ejecutadas se realizará mediante certificaciones periódicas expedidas por el director facultativo de las mismas. El pago se hará efectivo cumpliendo los plazos legales fijados para los mismos y las facturas se emitirán tras la aprobación de cada certificación por parte del órgano competente de Aia Lantzen S.A.
6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.	**6. REVISION DE PRECIOS** En el presente contrato no procederá la revisión de precios tal y como se acredita en el expediente.
7. BERMEAK Hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko Kontratazio Mahaiak puntuaketa handiena lortzen duen lehiatzaileari errekerituko dio behin betiko bermea aurkez dezan. Berme hori eskainitako azken prezioaren zenbatekoaren % 5ekoa izango da, BEZa kenduta.	**7. GARANTIAS** A fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, la Mesa de Contratación requerirá al licitador que obtenga mayor puntuación para que constituya garantía definitiva por la cuantía, equivalente al 5% del importe del precio final ofertado, excluido el IVA,

Berme hori jartzeko epea 7 lanegunekoa izango da, 21. baldintzan aipatutako eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke.	El plazo para la constitución de la citada garantía será de 7 días hábiles, contados desde el día siguiente al de la recepción del requerimiento a que se refiere la cláusula 21, y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la Ley de Contratos del Sector Público. La acreditación de su constitución podrá realizarse por medios electrónicos, informáticos o telemáticos.
Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Aia Lantzen SA-k ez du esleipena bere alde egingo.	De no cumplirse este requisito por causas imputables al licitador, Aia Lantzen SA no efectuará la adjudicación a su favor.
Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.	La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de la Ley de Contratos del Sector Público, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por el adjudicatario todas sus obligaciones contractuales.
8. KONTRATUA BURUTZEA	**8. EJECUCION DEL CONTRATO**
Egiaztatze zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra-kontratua betetzea, eta hori 15 eguneko epean egingo da, kontratua sinatu den egunetik kontatzen hasita.	La ejecución del contrato de obras comenzará con la firma del acta de comprobación del replanteo que deberá tener lugar dentro del plazo de 15 días, contados desde la formalización del contrato.
Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 239. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.	La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista y éste no tendrá derecho a indemnizaciones por causa de pérdidas, averías o perjuicios ocasionados en las obras, salvo en los casos de fuerza mayor previstos en el artículo 239 de la Ley de Contratos del Sector Público.
Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Sektore Publikoen Kontratu Legearen eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak.	En todo caso, las obras se realizarán con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en el presente pliego, a las especificaciones técnicas unidas al mismo, así como a lo establecido en la Ley de Contratos del Sector Público y en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre.
Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.	En especial, la ejecución del contrato se desarrollará bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente.

Aiako Udala
Gozategi 1, 20809 AIA
Telf. 943-131144
aia@aia.eus

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du. Aurrekoak egikaritzeko eta agerian gera dadin adierazten da, Udalaren ordezkaritza kontratistaren aurrean Aia Lantzen S.A. berariaz izendatutako teknikariak izango duela.	Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo. A estos efectos se hace constar que la representación del Aia Lantzen S.A. ante el contratista será desempeñada por un/una Técnico/a designada para la misma.
9. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Aia Lantzen SAk ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.	**9. OBLIGACIONES LABORALES DEL CONTRATISTA** El contratista está obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, con respecto al personal que emplee en las obras objeto de este contrato, quedando Aia Lantzen SA exonerada de responsabilidad por este incumplimiento.
10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE Obrak burutzen diren bitartean, kontratistaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.	**10. RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO.** El contratista será responsable, durante la ejecución de las obras, de todos los daños y perjuicios que se puedan ocasionar a cualquier persona, propiedad o servicio, público o privado, como consecuencia de los actos, omisiones o negligencias del personal a su cargo, o de una deficiente organización, protección o señalización de las obras.
11. KONTRATUA ALDATZEA Herri-onurako arrazoiak direla eta, Aia Lantzen SA-k kontratua aldatzea izango du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada betiere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez baditu. Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.	**11. MODIFICACIONES DEL CONTRATO** Aia Lantzen SA podrá modificar el contrato por razones de interés público cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el art. 205 de la Ley de Contratos del Sector Público y siempre que con ello no se alteren las condiciones esenciales de la licitación y adjudicación. Las posibles modificaciones referidas anteriormente serán obligatorias para el contratista.

Aipatu Legearen 242.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak Aia Lantzen SA-k zehaztuko ditu. Kontratistak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.	De acuerdo con lo dispuesto en el art. 242.2 de la referida Ley, cuando las modificaciones en el contrato supongan la introducción de nuevas unidades de obra no comprendidas en el mismo, los precios de dichas modificaciones serán los fijados por Aia Lantzen SA y en caso de que el contratista no los acepte, el órgano de contratación podrá contratarlas con otro empresario en los mismos precios que hubiese fijado o ejecutarlas directamente.
12. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak esleitzailearen esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da. Bermearen urtebetekoa izango da eta harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako berme bezala finkatzen delarik. Nolanahi ere, kontratistak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, kontratistak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleitzailearen esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.	**12. RECEPCIÓN DE LAS OBRAS Y PLAZO DE GARANTÍA** En el plazo máximo de un mes desde la finalización de las obras se producirá el acto formal y positivo de recepción de las mismas, del que se levantará la correspondiente acta. El plazo de garantía será de un año y comenzará a contar desde la fecha de recepción formal, que se fija como garantía a los efectos previstos en la Ley de Contratos del Sector Público y en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. No obstante, si la obra se arruina con posterioridad a la expiración del plazo de garantía por vicios ocultos de la construcción debido al incumplimiento del contrato por parte del contratista, responderá éste de los daños y perjuicios durante un plazo de quince años a contar desde la recepción. Transcurrido este plazo sin que se haya manifestado ningún daño o perjuicio, quedará totalmente extinguida la responsabilidad del contratista.
13. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU **A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA**	**13. PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO** **A. INCUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO**

Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak edo erabiltzaileei zein instalazioaren erabilpen orokorrari eragozpenak gutxitzeko lehiatzaileek eskaini dituenak. Aia Lantzen SAk bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 2,00 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.	Si el contratista, por causas imputables al mismo, hubiese incurrido en demora respecto del cumplimiento del plazo de ejecución del contrato, tanto del plazo total como, en su caso, de los plazos parciales o respecto a la minimización de afección a los usuarios y al uso general de la instalación, Aia Lantzen SA podrá optar indistintamente por la resolución del mismo, con pérdida de la garantía, o por la imposición de penalidades en la proporción de 2,00 euros diarios por cada 1.000 del precio del contrato.
Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.	Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.
Eskaintzan agindutako epeak ez betetzeak instalakuntzaren ustiapenean sortu daitezen kalteengatiko erreklamazioa erakarriko balu, esleipendunak gerta daitekeen kalte ordainari aurre egin beharko dio.	Si el incumplimiento de los plazos ofertados en la propuesta conllevara daños o pérdidas en la explotación de la instalación, el adjudicatario deberá hacer frente a la indemnización que pudiera acordarse.
B. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Aia Lantzen SAk kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du	**B. CUMPLIMIENTO DEFECTUOSO** En caso de cumplimiento defectuoso de la prestación, Aia Lantzen SA podrá imponer una penalidad equivalente al 10% del presupuesto del contrato.
14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211 eta 245. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.	**14. CAUSAS DE RESOLUCION DEL CONTRATO** Constituyen causas de resolución del contrato de obras las establecidas en los artículos 211 y 245 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Aiako Udala
Gozategi 1, 20809 AIA
Telf. 943-131144
aia@aia.eus

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK Aia Lantzen SA-ri dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.	**15. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACION** Corresponden a Aia Lantzen SA las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la Ley de Contratos del Sector Público, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA **16. ESLEIPENAREN PROZEDURA** Kontratu honen esleipena erraztutako prozedura ireki bidez egingo da. Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira: <u>BALORAZIOA ESKATZEN DUTEN ERIZPIDEAK.</u> Sail honetako dokumentazioa B artxiboan sartu beharko da. Erizpide honen haztapena: Gehienez 25 puntu. **MEMORIA TEKNIKOA** (Proiektuaren ezagutza, obraren antolaketa eta enpresaren pertsonal eta makineria.) 2<u>5 puntu.</u> Ondorengo gaien azterketa jasoko duen proposamen teknikoa aurkeztuko da: Obraren antolaketa argitu beharko da, bereziki obrarako sarbideak, baliabide auxiliarren erabilera, materialaren akopioa. Instalakuntzari ahalik eta kalte gutxien sortaraztea. Honez gain, enpresak bere kargura dituen pertsonal eta makinariaren zerrenda bat aurkeztu beharko du.	**II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR** **16. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACION** La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto. Los criterios de valoración de las ofertas que han de servir de base para la adjudicación del contrato y la ponderación que se les atribuye son los siguientes: <u>CRITERIOS CUYA APLICACIÓN REQUIERE REALIZAR UN JUICIO DE VALOR.</u> La documentación correspondiente a este apartado deberá de incluirse en el archivo B. Ponderación total de este criterio: Hasta 25 puntos: **MEMORIA TECNICA** (Conocimiento del proyecto, organización de la obra y personal y maquinaria de la empresa). Hasta 25 puntos. Se presentará una propuesta técnica que debe abordar las siguientes cuestiones: Se deberá estudiar la organización de la obra, en lo referido en particular a los accesos, la implantación de medios auxiliares, la previsión de acopios. La producción de los menores daños posibles en la instalación. Además, una relación del personal propio y maquinaria propia que tiene la empresa.

Aiako Udala
Gozategi 1, 20809 AIA
Telf. 943-131144
aia@aia.eus

PROIEKTUARI HOBEKUNTZAK: (Gehienez 5 puntu). AUTOMATIKOKI BALORATUKO DIREN ERIZPIDEAK. **C artxiboan sartu beharrekoa**. Erizpide honen hastapena: **75 puntu**. **Eskeintza ekonomikoa (Gehienez 50 puntu).** Puntuazio haundiena, eskeintza merkeenak izango du eta beste eskeintzei, era proportzionalean, baja portzentaia eta eskeintza txikienaren arteko diferentzia emango zaie. 9/2017 Legearen 149 artikuluaren arabea, desproportzionatuak ulertuko dira, ondorengo eskeintzak: eskeintza guztien media % 10 baino txikiakoak diren eskeintzak. Deklarazioa hori egin aurretik, enpresari informazio argigarria eskatuko zaio eta Udal honek bulego teknikoak ere bere balorazioa egin beharko du. Enpresek, argudiatu ahal izango dute, onura industrial txikiagoa jasotzearen arrazoiak. **Obra epea (Gehienez 25 puntu):** Proiektuaren arabera obra epea 18 hilabetekoa izanik, obra bukaera aurreratzen den egun bakoitzeko 0,40 puntu (egun naturalak).	**MEJORAS AL PROYECTO**: (Hasta 5 puntos). CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA. **A incluir en el archivo C**. Ponderación total de este criterio: **75 puntos** **Oferta económica (Hasta 50 puntos).** Se otorga la máxima puntuación a la mejor oferta y al resto de las ofertas se les otorgará el resultado de restar a la mejor puntuación los puntos resultantes de la diferencia entre el porcentaje de baja y el de la oferta más baja. De conformidad con lo dispuesto en el art. 149 de la Ley 9/2017, se considerarán como desproporcionadas las ofertas inferiores en más de un 10% a la media aritmética de todas las ofertas admitidas y su declaración requerirá la solicitud previa de información a esos licitadores, así como el asesoramiento técnico de la oficina técnica. Las empresas podrán presentar argumentación justificativa en la que justifiquen su opción de obtener un menor beneficio industrial sobre el consignado en el presupuesto. **Plazo de obra (Hasta 25 puntos):** Teniendo en cuenta que el plazo de ejecución de la obra en el proyecto se estima en 18 meses, por cada día que se adelante la finalización de la obra 0,40 puntos (días naturales).
17. KONTRATAZIO MAHAIA Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute: - Lehendakari: Aia Lantzen SAko Lehendakaria	**17. MESA DE CONTRATACIÓN** La Mesa de contratación estará compuesta por los siguientes miembros: - Presidente: El Presidente de Aia Lantzen SA

Ordezkoa: Lehendakariordea. - Batzordekideak: Udal Brigadako obra arduraduna.- Udaleko diruzaina eta Aia Lantzen SAko kontseilaria. - Idazkaria: Udaleko funtzionaria. Kide bakoitzak ordezko bat izenda dezake. Mahai kontratatzaileak, pertsona adituen zerbitzuak erabili ditzazke prozeduran zehar.	Suplente: Vicepresidenta - Vocales: El respondable de obras de la brigada municipal,- El responsable financiero del Ayuntamiento y un/una consejera de Aia Lantzen SA. - El Secretario: Un funcionario del Ayuntamiento. Cada miembro podrá designar a su suplente. La Mesa de Contratación podrá solicitar ayuda de expertos durante el proceso de adjudicación.
18. KONTRATATZEKO GAITASUNA Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Halaber Sektore Publikoko Lehiatzaile eta Klasifikatutako Enpresen Erregistro Ofizialean edo/eta Euskadiko Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dira eskaintzak aurkezteko bukaera datan, obrako kodean edo handiagoan, eta horrela egiaztatutako dute Erregistro horren ziurtagiria aurkeztuz.: **Taldea C, Azpitaldea 2, Kategoria d.** Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiribidez.	**18. APTITUD PARA CONTRATAR** Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la Ley de Contratos del Sector Público. Asimismo deberán acreditar su inscripción en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público y/o en el Registro Oficial de Euskadi en la fecha final de presentación de ofertas, en el código correspondiente a la obra o superior, mediante la presentación del correspondiente certificado: **Grupo C, Subgrupo 2, Categoría d.** Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello.
19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Aia Lantzen SAren kontratzailearen profilean: https://www.aia.eus/eu/kontratatzaileen-profila aztertu daiteke, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hamabost laneguneko epean.	**19. LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACION DE LAS PROPOSICIONES** El expediente de esta contratación, así como la documentación técnica unida al mismo, podrá ser examinado en el perfil de contratante de Aia Lantzen SA: https://www.aia.eus/es/perfil-del-contratante en el plazo de quince días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación el anuncio en el perfil del contratante citado.

Proposamenak kontratzailearen profilean aurkeztu beharko dira, lehen aipatu bezela, iragarkia kontratzailearen profilean argitaratu eta hurrengu egunetik hasita hogei laneguneko epean. Lizitatzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko erantzuna informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko lau egunetan, gutxienez, eskainiko da, betiere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira. Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak.	Estas se presentarán en el perfil del contratante anteriormente citado en el plazo de veinte días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación en dicho perfil. La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten los licitadores será facilitada en el plazo de cuatro días antes de la fecha límite fijada para la recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos ocho días antes del vencimiento del plazo de recepción de las proposiciones señalado anteriormente. Las proposiciones presentadas con posterioridad al plazo fijado para su recepción no serán admitidas.
20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA Lizitatzaileek hiru artxibo (A, B eta C) aurkeztuko dituzte. Honako izenburuarekin: “ARRAZUBI-BERRI: BOST ETXEBIZITZA BABESTU”.	**20. FORMA DE PRESENTACION DE LAS PROPOSICIONES** Los licitadores deberán presentar tres archivos (A, B y C) en cada uno de los cuales figurará la inscripción “ARRAZUBI-BERRI: BOST ETXEBIZITZA BABESTU”.
“A” artxiboaren azpititulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA, KAUDIMENA”. Hona hemen “A” artxiboan aurkeztu beharreko agiriak: a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia eta elkartearen izenean aritzeko gaitasunari buruzko adierazpen arduratsua. b) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria, Estatuko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiria, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 97. artikuluak xedatutakoaren arabera.	**El archivo “A” se subtitulará “CAPACIDAD, SOLVENCIA PARA CONTRATAR** El archivo “A” contendrá los siguientes documentos: a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad del participante o su representante y declaración responsable respecto a ostentar la representación de la sociedad. b) Certificación del Registro Oficial de Contratistas y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma Vasca, del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Estado o certificado comunitario de clasificación conforme a lo establecido en el art. 97 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Enpresa berrien kasuan, hau da bost urte baino gutxiagoko aintzinatasuna dutenak, Sektore Publikoko Kontratu Legeak bere 88 artikuluko b, e eta f ataletan jasotzen dena aurkeztu beharko dute.	Cuando la empresa sea de nueva creación, entendiendo por tal aquella que tenga una antigüedad inferior a cinco años, deberá de acreditar su solvencia técnica por los medios a que se refieren los apartados b, e y c del art. 88 de la Ley de Contratos del Sector Público.
Aipatu ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen lizitatzailearen adierazpen arduratsua ere gehitu beharko da.	A la referida certificación deberá acompañarse una declaración responsable del licitador en la que manifieste que las circunstancias reflejadas en el correspondiente certificado no han experimentado variación.
Aurreko atalean aipatutako ziurtapena elektronikoki eman daiteke.	El certificado mencionado en el apartado anterior podrá ser expedido electrónicamente
c) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero, AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.	c) En el caso de que varios empresarios acudan a la licitación constituyendo una Unión Temporal de Empresas, cada una de las que la componen deberá acreditar su capacidad y su solvencia conforme a lo establecido en los puntos anteriores, y, asimismo, aportar el compromiso de constituirse formalmente en UTE en caso de resultar adjudicatarios. Igualmente, indicarán en la proposición la parte del objeto que cada miembro de la UTE realizaría, con el fin de determinar y comprobar los requisitos de solvencia de todos ellos.
d) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.	d) Para las empresas extranjeras, declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.
e) Prozedura horren ondorioz sortzen diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa.	e) Dirección electrónica para practicar las notificaciones que se produzcan en el presente procedimiento.
B" artxiboa: BALIO JUIZIO BIDEZ BALIOZTATU DAITEZKEEN ERIZPIDEAK	**El archivo "B" CRITERIOS DE VALORACION MEDIANTE JUICIOS DE VALOR**
MEMORIA TEKNIKOA	**MEMORIA TÉCNICA**

Obraren antolaketa argitu beharko da, bereziki obrarako sarbideak, baliabide auxiliarren erabilera, materialaren akopioa. Inguruan eta ondoko jabeei ahalik eta kalte gutxien sortaraztea. Eta bestalde, enpresak obra hau aurrera eramateko bere kargura dituen pertsonal eta makineriaren zerrenda. **PROIEKTUARI HOBEKUNTZAK** Proiektuak jasotzen ez dituen baina egitasmoa hobetu lezaketen proposamenak, inolako prezio igoerarik suposatu gabe.	Se deberá estudiar la organización de la obra, en lo referido en particular a los accesos, la implantación de medios auxiliares, la previsión de acopios. La producción de los menores daños posibles en la zona y propiedades limítrofes… Y por otro lado, deberá de presentar un resumen de los medios humanos y materiales propios de que dispone para llevar a cabo la citada obra. **MEJORAS AL PROYECTO** Se podrán proponer aquellas mejoras que puedan mejorar el proyecto, sin que ello suponga ningún aumento del precio.
"C" artxiboa : "DIRU-PROPOSAMENA, EPEA ETA AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK". Hona hemen "C" artxiboan aurkeztu beharreko agiriak: a)I. eranskinean atxikitako ereduaren araberako diru-proposamena eta partida bakoitzeko banakako prezioen xehatutako aurrekontua. b) Obraren exekuzioko kronograma epea adieraziz.	**El archivo "C" "PROPOSICION ECONOMICA, PLAZO Y CRITERIOS DE VALORACION AUTOMATICA"** El sobre "C" contendrá los siguientes documentos: a) Proposición económica ajustada al modelo incorporado en el Anexo I y presupuesto desglosado con los precios unitarios de cada partida. b) Cronograma de la ejecución de la obra determinado el plazo total de la misma.
21. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira: 1. A ARTXIOBAREN IREKIERA. 2. B ARTXIBOAREN IREKIERA. Kontratazio Mahaiak, balio judizio bidez balioztatu daitezkeen irizpideen arabera proposamenak balioztatzeari ekingo diote. Balioztatze hau gehienez ere 7 eguneko epean egin beharko dute.	**21. APERTURA Y TRATAMIENTO DE LA DOCUMENTACION PRESENTADA Y SELECCIÓN DE EMPRESAS** Vencido el plazo de presentación de proposiciones se llevarán a cabo las siguientes actuaciones: 1º. APERTURA DEL ARCHIVO 1. 2. APERTURA DEL ARCHIVO 2. La Mesa de Contratación procederá a valorar las proposiciones contenidas en los sobres "B" según los criterios de adjudicación cuya cuantificación depende de un juicio de valor. Esta valoración se hará en el plazo máximo de 7 días.

Aiako Udala
Gozategi 1, 20809 AIA
Telf. 943-131144
aia@aia.eus

3. "C" ARTXIBOA PUBLIKOKI IREKITZEA	3. APERTURA PUBLICA DEL ARCHIVO “C”
"A" eta B artxiboa ireki ondoren, "C" artxiboa irekiko da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gehienez hogei laneguneko epean, publikoki kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan.	Tras la valoración de la documentación contenida en el sobre “A” y B, según los criterios de adjudicación cuya cuantificación depende de un juicio de valor, se llevará a cabo la apertura pública del sobre “C”, como máximo en el plazo de 20 días naturales desde el fin del plazo de la presentación de propuestas.
Ekitaldi horretan, eta “C” karta azalak zabaldu aurretik, eskaintza bakoitzean balio-judizio baten menpeko irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da.	En este acto y previamente a la apertura de los sobres “C” se dará a conocer la valoración asignada a los criterios dependientes de un juicio de valor en cada oferta.
Egintza publiko horren ondoren, bilkura berean, mahaiak ondorengoak egingo ditu:	Tras dicho acto público, en la misma sesión, la mesa procederá a:
1. Aurrez pleguan ezarritako errekerimenduak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, eskaintzak balioztatu eta sailkatu.	1.º Previa exclusión, en su caso, de las ofertas que no cumplan los requerimientos del pliego, evaluar y clasificar las ofertas.
2. Puntuaketa onena duen hautagaiaren alde esleipen proposamena egin.	2.º Realizar la propuesta de adjudicación a favor del candidato con mejor puntuación.
3. Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean egiaztatu enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamena izenpetzen duenak eskaintza egiteko nahiko ahalmen baduela, eta dagokion sailkapena eta kontratatzeko debekuetan ez dagoela sartuta.	3.º Comprobar en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas que la empresa está debidamente constituida, el firmante de la proposición tiene poder bastante para formular la oferta, ostenta la clasificación correspondiente y no está incursa en ninguna prohibición para contratar.
4. Puntuaketa onena lortu duen enpresari, komunikazio elektroniko bidez, errekeritu behin betiko bermea jarri dezan, hala nola 75.2 artikuluak aipatzen duen konpromisoa ekar dezan eta 76.2 artikuluak dioenarekin adostasunean, kontratua burutzeko baliabideak jartzeko hartutako konpromisoa betetzeko nahiko baliabide badituela justifikatzen duen dokumentazioa; eta guzti hori komunikazioa bidaltzen zaionetik 7 laneguneko epean.	4.º Requerir a la empresa que ha obtenido la mejor puntuación, mediante comunicación electrónica, para que constituya la garantía definitiva, así como para que aporte el compromiso al que se refiere el artículo 75.2 y la documentación justificativa de que dispone efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al artículo 76.2; y todo ello en el plazo de 7 días hábiles a contar desde el envío de la comunicación.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikuluan xedatutakoaren arabera, puntuaketa onena lortu duen lizitatzaileen eskaintza anormaltzat edo neurrigabetzat jo daitekeela irizten denean, mahaiak, aurreko 1. eta 2. puntuetan esandakoak egin ondoren, aipatu artikuluan aurreikusitako prozedura jarraituko du, nahiz eta lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko gehienezko epea 5 laneguneko izango den dagokion komunikazioa bidaltzen zaionetik.	En el caso de que la oferta del licitador que haya obtenido la mejor puntuación se presuma que es anormalmente baja por darse los supuestos previstos en el artículo 149, la mesa, realizadas las actuaciones recogidas en los puntos 1.º y 2.º anteriores, seguirá el procedimiento previsto en el citado artículo, si bien el plazo máximo para que justifique su oferta el licitador no podrá superar los 5 días hábiles desde el envío de la correspondiente comunicación.
Behin betiko bermea aurkeztu ondoren, eta hau beharrezkoa den kasuetan, azaroaren 26ko 47/2003 Legean, Aurrekontuetako Orokorrean aurreikusitako zehaztapenetan, Kontuhartzailetzak gastuaren fiskalizazioa aurrez eginik, 5 egun baino gehiago izango ez den epean, proposatutako lehiatzaileari esleituko zaio kontratua, eta hau egin ondoren, berau formalizatu egingo da.	Presentada la garantía definitiva y, en los casos en que resulte preceptiva, previa fiscalización del compromiso del gasto por la Intervención en los términos previstos en la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, General Presupuestaria en un plazo no superior a 5 días, se procederá a adjudicar el contrato a favor del licitador propuesto, procediéndose, una vez adjudicado el mismo, a su formalización.
Horretarako emandako epean esleipendunetarako proposatutako hautagaiak behin betiko bermea aurkeztuko ez balu, esleipen proposamena egingo da puntuaketaren araberako hurrengo hautagaiaren alde, dagokion epea emanez aipatu behin betiko bermea jar dezan.	En caso de que en el plazo otorgado al efecto el candidato propuesto como adjudicatario no presente la garantía definitiva, se efectuará propuesta de adjudicación a favor del siguiente candidato en puntuación, otorgándole el correspondiente plazo para constituir la citada garantía definitiva.
Enpresariak Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein dokumentazio aurkeztu beharko balu, berau behin betiko bermea aurkezteko jarritako 7 laneguneko epean aurkeztu beharko da.	En el supuesto de que el empresario tenga que presentar cualquier otra documentación que no esté inscrita en el Registro de Licitadores, la misma se tendrá que aportar en el plazo de 7 días hábiles establecido para presentar la garantía definitiva.
22. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK	**22. ADJUDICACION, FORMALIZACION Y GASTOS**
Kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileari egingo dio esleipena.	El órgano de contratación acordará la adjudicación del contrato al licitador que presente la proposición que resulte económicamente más ventajosa.
Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.	El contrato se perfeccionará mediante su formalización en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den 15 egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipendunak honakoak egingo ditu: a) Administrazio honen bulegoetara etortzea, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko. Azkenik, formalizazio-dokumentuan jasotzen den epearen barruan (sinatu eta gehienez hilabetera), esleipenduna Administrazio honetara etorriko da proiektuaren zuinketa egiaztatu eta dagokion akta sinatzera. Une horretatik aurrera, kontratuaren exekuzio-epea kontatzen hasiko da.	En el plazo que se señale en la notificación de la adjudicación, que no podrá exceder de 15 días hábiles, el adjudicatario deberá realizar las siguientes actuaciones: a) Comparecer en esta Administración para formalizar el contrato en documento administrativo. Finalmente, dentro del plazo que se consigne en el documento de formalización, y que no será superior a un mes desde la firma del mismo, el adjudicatario deberá comparecer en esta Administración para comprobar el replanteo del proyecto y firmar la correspondiente acta, momento desde el cual comenzará a contar el plazo de ejecución del contrato.
III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA **23. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA** Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen duen, azaroaren 8ko, 9/2017 Legea; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 9/2017 Legearen aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak. Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.	**III.- NATURALEZA, REGIMEN JURIDICO Y JURISDICCION COMPETENTE** **23. NATURALEZA Y REGIMEN JURIDICO DEL CONTRATO** El contrato que en base a este pliego se realice tendrá carácter administrativo, rigiéndose por el presente pliego y el resto de la documentación técnica que lo acompaña. En todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, , por el que se aprueba la Ley de Contratos del Sector Público; en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, en lo que no se oponga a la Ley 9/2017; y en las demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas. En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego.

Aiako Udala
Gozategi 1, 20809 AIA
Telf. 943-131144
aia@aia.eus

24. DATU PERTSONALEN BABESA Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.	**24. PROTECCION DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL** En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, el contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas de la DisposiciónAdicional Vigésima Quinta de la Ley de Contratos del Sector Público, en relación con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y su normativa de desarrollo.
25. JURISDIKZIO ESKUDUNA Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu, kontratazio organoaren erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote, eta administrazio-auziko eskumenaren aurrean errekurritu aha izango dira,Herri-Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako dagokion beste edozein helegite aurkeztearen aukeraren kalterik gabe.	**25. JURISDICCIÓN COMPETENTE** Las cuestiones controvertidas que se puedan derivarse del presente contrato serán resueltas por el órgano de contratación, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y podrán ser impugnados directamente ante la jurisdicción contencioso-administrativa, sin perjuicio de que, en su caso, proceda la interposición de cualquier recurso de los regulados en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
Aian, 2026ko urtarrilaren 22an.	En Aia, a 22 de enero de 2026.